

# Baleike

Zuzuneko lehen aldizkaria. 16. azkia. 1995eko iraila. 1000 pata.



## Goiko plazan jende gutxi

**Elkarrizketa**

**Asentxio  
Elustondorekin  
hizketan**

**Ze berri?**

**Bale bat azaldu  
zen Algorri  
aldean**

**Kirolak**

**Itxas-Gainen  
denboraldi  
bikaina**




(Javier Carballo utzitako argazkia)

*Badakizue nola garai batean Zumaiako portuak garrantzi handia izan zuen merkataritzan. Ikusten dezuenez, orain Gernika parkea dena bagoiz josita ageri da. Eta lehen planuan, "Maria Noriega" untzia; ez dakigu furgoneta zahar polit horiek kargatzen ala hustutzen ari diren, zeuek asmatu!*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA  
Aita Mari Auzategia, z/g  
20750 - ZUMAIA  
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria





**BALEIKE**  
**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea  
**ZUMAIAKO**  
**GAZTE**  
**BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Ander  
Hormazuri, Jon Manzidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 700 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKE** ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Gutunak.....	4
Gai Librean.....	5
Ze Berri?: Balea Algorrin. Ikastaroak. "Txato" .....	6
Elkarrizketa: Axentxio Elustondo, parrokoa.....	9
Erreportaia: Goiko plazan jende gutxi .....	12
Komikia: Jon Ander Garcia.....	15
Sexualitatea:.....	18
Olarru zopa .....	19
Izerdi patsetan: Itxas-Gain. Triatloia.....	20
Inkesta fotografikoa: Eta Kontxan zer?.....	23
Udako festak:.....	24
Gaztedia: Begirale ikastaroa.....	25
Kultur Agenda:.....	26
Musika: Ezbaikorrak.....	28
Denborapasak:.....	30
Merkatu txikia:.....	31
Kontraportada:.....	32

**NON DAUDE GURE OPORRAK?**

*Bagoaz lanera, bagoaz lanera... udarako azken hondarrak astindu eta... bagoaz lanera. Laister hasiko da ama pixkanaka neguko erropak ateratzen; eta trajebainuei... hurrengo urterarte. "Ama bi mila duro liburuak erosteko". Baina lasai. Oraindik egun batzuk ere geratzen zaizkigu eta. Gainera, uda amaierak baditu bere gauza onak. Adibidez, "Chanquete" hemezortzigarren aldiz akatu dute eta "Verano Azul"-en ordeztu Goenkalekoak izango ditugu TBn. A ze diferentzia! Itzurun ere biluztuz joango zaigu, eta mundura etorri zen bezela ikusteko aukera izango dugu. Eta hilabete honetako zenbakian? Ba danetik, beti bezela. Goiko Plazaren inguruko arazoak aztertzen saiatu gara, Asentxio parrokoarekin solasaldian, piraguistak ere bisitatu ditugu merezi zuten eta...  
**Badakizue, danetik.***

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

**ZUBIAREN ARAZOAK**


Duela lau urte inguru egin zuten moila Gernika parkearekin elkartzen duen zubia. Lotura bera oso ondo dago, distantziak laburtzen dituelako, pertsona-mota "guztientzat" inolako arris- kurik gabe. "Guztientzat" komila artean jartzen det, zubi horretatik ezin degulako "guztiok" lasai pasa, bi aldetan duen aldapa haudiagatik; hau gutxi balitz koxka batzuk jarri dizkigute edadetuak txirrist egin ez dezaten.

Hau ulertezina da; arazoa ondo konpondu beharrean, zubi hori bota eta minusbaliatuak eta edadetuak igarotzeko baldintza egokietan jarri, egiten dutena oraindik okerrago jartzea da. Ezin zait buruan sartu nola gauzak hain gutxi pentsatuta egiten diren.

EAJ-PNV-ko zinegotzi batek esan zidanez, itsasuntziak azpitik pasa daitezzen da horrelakoa zubia. Hau da itsasuntziek pertsonok baino balio haundiagoa dute. Orduan kontribuzioa itsasuntziek ordain dezatela.

Beste behin Peña jaunak errepidetik joateko esan zidan. Eta nik esaten dedana: zergaitik joan behar det errepidetik, nik nahi dedana Gernika parketik joatea bada eta nere etxetik hurbilago badago? Debekuen

**GUTUNAK**



**Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edo eta Joxe Manuelen kabinan.**

panelean ez da oraingoz "Minusbaliatuak debekatuak" ageri.

Amaitzeko ohar bat egin nahi nioke Zumaiako Udalari: horrela dagoen bitartean zubi horretan zerbait gertatzen bazait, Udala izango da horren erantzule.

Besterik gabe.

**Joxe Manuel Manzidor "BUDY"**



**UDALA ETA KIROLAK**

Zumaiako Udaletik adierazi nahi dugu aurreko legealdian, talde politiko guztien adostasuna lortu zela kirol taldeei laguntzak emateko erizpideak finkatzerakoan. Erizpide hauek orokorrean, talde bakoitzaren lizentzi kopurua, beraien ihardueraren esparrua, erabili beharreko kirol materiala, ... izango liriteke. Baina batez ere Udalaren nahia, zumaiarren artean kirolean parte hartzea bultzatzea denez, erizpiderik nagusiena lizentzi kopurua izaten da.

Horrela, puntu horiek kontuan harturik eta talde desberdinetako arduradunak aurkeztutako memoriak aztertu ondoren, banatzen dira dirulaguntzak. Hemen dituzue 1994ean emandakoak:

- Inda-Mendi: 157.590
- Txirindulariak: 219.050
- Pelota: 559.445
- Aita-Mari: 737.521
- Itxas-Gain: 1.142.875
- Eskubaloia: 853.087
- Zumaiako: 870.313
- Saskibaloia: 110..313

Subentzio horiek ezezik, herriko kirol taldeek urtean zehar antolatzen dituzten kirol ekintzetarako ere kontaktzen dute Udalaren laguntzarekin. Adibidez, Aita Mari Arraun Elkarteak aurten eratu dituen estropadetarako:

- San Telmotakoa: 425.000
- Udakoa: 1.050.000

Baina Udalaren kirol politika ez da laguntza hauetara mugatzen. Aipagarria da Zumaiako kirol azpiegitura eta bultzatzeko egiten den ahalegina. Bere garaian, Itsaskiroldegi baten beharra ikusita Udalak eraiki zuen horretarako eskatutako kreditu baten bitartez (100 milioi gutxigorabehera). Ezin dira ere ahaztu eguneroko erabilerak sortzen dituen gastuak (argindarra, ura, konponketak, ...). Antzeko zerbait esan daiteke beste gainontzeko kirol instalazioei buruz, besteak beste, Polikiroldegia.

Bestetik hor daukagu azken bi urte hauetan, udalaren ahaleginei esker, eskoletako kirol iharduera bultzatzeko Foru aldundiarekin bideratzea lortu den hitzarmena, Zumaiako ikastetxeek dirua jasotzeko aukera izan dutelarik.

Eta bukatzeko, gure zorionik beroenak Itxas-Gain piragua elkarteari aurtengo denboraldi bikainagatik.

**Jose Migel Antia (Kirol Batzordeburua)**

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**kukutz  
SERIGRAFIA**

- ★KAMISETAK
- ★KAPELAK
- ★TXISKEROAK
- ★TXANDALAK
- ★PAPELEZKO POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk

Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)





**AITA MARI**

**EZKERREKO BEGIA ITXI EGIN DUT**

Uste dut nahiago nukeela itsu izatea hau ikusi baino. Zeren okerragoa egiten baitzait begiratu eta nahi ez dudana ikustea. Horregatik, ezkerreko begia itxi egin dut.

Urte asko damazkit hemen, Errotako izkiñako begiraleku aparta honetan, zumaiarron joan-etorriak zaintzen, herrian gertatzen diren aldaketak ikusten. Egunean zehar momenturik hunkigarrienetako bat goizetan izaten zen,

egunsentiarekin batera, paolaldera begiratu eta itsasoa ikusten nuenean, ederki nabarmentzen baitziren bere barealdi eta haserraldiak, olatuen aparrak eta motoren joan-etorriak. Aspaldian, ordea, haruntz begiratu eta ... Zestoako harrobiko karaitzaren "edertasuna". Eta hori ikusteak negargura ematen dit, beste hitzen bat ez erabiltzearren.

ASTAKERIA bat izan da, kanporantz nuen leihoa adreiluz ez, baina harriztarrez itxi baitidate. Ez da hain maitea dudana itsasoa ikusten. Herriko garapen ekonomikoaren izenean; edo barrako sarrera oso txarra delako; edo horrela agindu dutelako; hainbeste arrazoi entzuten dira ... Ezin dut ikusi, baina Santioko hondartza ere erabat aldatu omen dute: hondartza handitu, hondarrez bete inguruko haitzak, eta abar. Kamioiak hor ibiltzen dira aurrera eta atzera. Zumaiarron beharrek merezi ote dute halako aldakuntzarik?

Ez dut nahi hori dena ikusi eta ezkerreko begia itxi egin dut. Nire azpitik pasatzen zaretenean, beraz, ez pentsatu hogeitamaikaren keinua egiten ari naizenik... paolalde hori erabat itsusitu duten harriztar horiek ikusi baino nahiago dut begia ixtea.

Oraindik eskubiko begia zabalik daukat, ordea; aurrean gertatzen dena zaintzeko. Santioko padura aldean Kirol Portua egin nahi omen dute; konprenitu nahi baina ez dut ulertzen zertarako eta are gutxiago norentzat. Kanpotik etorritako lau haundimaundik yatea bertan jartzeko? Ez behintzat bertako arrantzuntzientzat. Eskubiko begia ere itxi egin beharko ote dut? Oraindik garaiz gaude-zaudete. Ni, nire lekutik ezin naiz mugitu eta zuen esku dago zumaiarron geroaren alde lan egitea... Besterik ezean, etorkizunari begira, nire gogoz kontra, Errotako izkiña ez litzateke leku txarra 2.005 urtean turista eta kanpotarrei kupoiak saltzeko...



**Gorka**


**Agirrezabalaga**

**Oporrak  
bukatu dira**

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Iraila ere etorri da ta eskola hasi beharra oraindik ere bizirik dago gure ikastola zaharra ordu librerik izango dudana nire kezka bakarra ume guztiak esaten dugu: "Guk daukagu zoritxarra"

Udara hontan goiz guztietan jolasean egon gara eta gainera arratsaldetan joaten ginen hondartzara hain egun onak pasa ondoren zergatik oporrak laga baina ez kezka laister dator ta berriro ere udara



**BELARDENDA  
SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012

**Huntza, o.k.**



DISEÑUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ,ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA

# Bale bat azaldu da Algorri aldean




Bost metro t'erdiko balea azaldu zen Algorri abuztu bukaeran

Abuztuaren bukaera aldera, 28an hain zuzen ere, bale bat azaldu zen, hilik zoritxarrez, Algorriko haitzetan. Egun horretan Elorrixa azpian aurkitu zuten gorpua, baina hurrengo egunerako itsasoak Pikote parera eramana zuen bale hau.

Natur Taldekoek, berria jakin bezain laster neurtu eta klasifikatu zuten balea. Bost metro t'erdiko neurtu zituen eta zifidoen familikoa zela ikusi ahal izan zuten. Bale mota honi "picuda" edo "mokoduna" izenez deitzen zaio, mutur zorrotza duelako. Lodi eta indartsuagoa izan arren, izurdeen nahiko antzekoa dela esan dezakegu.

Bale hauen artean espezie ezberdinak daude, eta zaila da zehaztea baina "*Hiperoodon ampullatus*" edota "*Ziphius cavirostris*" bietako espezie batekoa dela ia ziur esan daiteke.



Oso toki txarrean zegoenez, Natur Taldekoek ezin izan zuten balea lurperatu. Horrelakoetan gorpua lurperatu ohi da, gerora berriz ere atera eta hezurak aztertu ahal izateko.

## Lucia Lakarraren arrakasta Donostian



Iaz gure orrialdeetan elkarrizketatu genuen neska hau, Victoria Eugenia antzokira inguratu zen abuztuaren 22 eta 23an, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barneko ekitaldi batean dantza egitera. Egunkari eta bestelako komunikabideek diotenez eta bertara inguratu ziren zumaia-ugarietako zenbaitek aipatu digutenez arrakasta ederra izan zuen lanak.

Marseilako Roland Petit konpainian aritzen da Lucia, "Coppelia" lanaren barruan Swanildaren papera betetzen. Bera da lehen dantzaria, nagusia, eta horrela jarrai dezala opa diogu zumaia-ugari honi.



## Erribera kaleko dendariak haserre

Denok dakigu nola marea biziak direnean behin baino gehiagotan Erribera kalearen erdian urak gainezkatu eta putzu haundiak sortzen diren. Duela ia bi urte bertako dendariak idatzi bat aurkeztu zuten udaletxean, arazo hau lehenbailehen konpontzeko eskatuz. Udalak neurriak hartuko zituela agindu zien, baina dendariak oraindik ere ez dutela erantzunik jaso salatzen dute.

Auto - Konponketak

# ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA    Telefonoa: 860201

JOSEBA OSA

- ITZULPENAK -

EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA

tel / fax: 148065



## Bi urte Xabier Kalparsoro "Txato" hil zutela

Hil honen 26an bi urte beteko dira zumaiaz gazte hau poliziaren eskuetan hil zela. Gertaera tamalgarri honen ikerketan ez da ezer aurreratu eta lehengo zalantza eta puntu ilunek ez dute argirik ikusi. "Dick Turpin" kolektiboak hainbat ekitaldi antolatu ditu "Txato" omentzeko.

Xabier Kalparsororen hilketaren bigarren urteurrena dela eta, irailaren azken astean zehar ekitaldi ugari antolatu ditu "Dick Turpin" kolektiboak.

Hilaren 26an beteko dira hain zuzen bi urte, bizpahiru egun koman egon ondoren, "Txato"-k azken arnasa hartu zuenetik, eta egun honetarako omenaldi ekitaldi bat antolatu da Algorriko labarretan, juxtu bere errautsak aideratu ziren tokian, bere azken gutuna gordetzen den leku berean.

Egun bat lehenago, hala ere, hitzaldi bat izango da, Oxford-en.


Hitzaldiaren gaia eta hizlariaren izena garaiz adieraziko da.

Irailaren 27an "Gudari Eguna" izango da Euskal Herri osoan, eta mobilizazio eta ekitaldi ezberdinak antolatuko dira.

Ostegunean, 28an, *Hertzainak* taldeko abeslaria izandako *Garik* kontzertu bat eskeiniko du, Oxford-en.

Azkenik, astebururako afari herrikoia eta ekitaldi politikoa antolatu dira.

Hala ere, egitaraua laster zehaztuko da, orduak eta bestelako xehetasunak adieraziz.



## Patxi Aristi isolatua

Duela gutxi Frantziatik extraditatu duten preso politiko zumaiaz 6 astetako isolamenduko zigorra ezarri diote, 10.artikuloa aplikatu ondoren.

Horrelaxe salatu dute Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Zigorren arrazoia preso sozial bati zigorro bat ematea izan da. Talde honek adierazi duenez, Patxi erabat isolatua dago, ezin du beste presoekin inolako kontakturik izan; astean 10 minutuko bixita bakarra izan dezake, eta senide zuzenekin bakarrik, gainera; ezin du paketerik jaso eta ekonomatora joateko aukera ere kendu diote.

Zumaiako AABren hitzetan, non daude giza eskubideak?

## Paolean ere fokoak?

Abuztuan zehar herri langileak Paolaren azpikaldeko sasi eta sastrakak kentzen aritu dira. Zurrumurru baten arabera, Paolak berak argi gutxi egiten duela eta, dirudienez Parrokiari bezalaxe foko batzuk jarri nahi dizkiote. Postaletarako beste argazki bat gure herrian.



Irailaren 26an izango da omenaldia, Algorriko labarretan.



**Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK  
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK  
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK


Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA



# NIKOL-ENEAA

taberna

**Amaiako plaza Tfnoa. 861440**

## Lanbide Hastapenerako ikastaroak antolatu dira

Aurreko urteetan egindako lanarekin jarraituz, aurten ere Lanbide Hastapenerako zenbait ikastaro antolatu ditu Urola Kostako Udal Elkarteak.

Ikastaro hauek hasiera batean ikasketak utzi eta lanbide bat ikasi nahi duten 16-20 urte bitarteko neska-mutil langabetuei daude zuzenduta.

1995-1996 ikasturte honetan, bi aukera nagusi eskeintzen dira. Batetik ERAIKUNTZA arloa landuko da, Igeltsaritz eta Margo eta paperez-taketa hain zuzen ere. Bestetik OSTALARITZA arloa izango da, eta honetan Sukaldaritz eta Taberna eta jantokietako zerbitzua ikusiko dira.

Oinarrizko ikastaroan ofizio baten oinarrizko ikaskuntza egingo da, gizarte eta lan heziketarekin osatua. Sakontze ikastaroan ofizioaren espezializazioa eta lanbide bat aurkitzeko teknikak landuko dira. Eta azkenik, eskualdeko lantokietan praktiak egiteko aukera izango da.

Izena emateko epea zabalik dago jadanik, eta irailaren 22a bitartean ez da itxiko. Zumaian Gizarte Zerbitzuetan eman dezakezu izena, Amaia Plazan dituen lokaletan; baina azaldu baino lehen, aurrez 862200 telefonora deitzea komeni da.

Urola-Kostako Udal Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak babesten dituzte ikastaroak. ■



*Teoria eta praktika, biak landuko dira ikastaro hauetan.*

## Birziklaia ikastaroak Institutuan

Zumaiaiko Institutuak, Foru Aldundiaren babesarekin, Birziklaia ikastaroak antolatu ditu langileentzat. Sei ikastaro dira guztira: Word 6.0 Windows, Neumatika, Automata programagarriak, e.a. Urrian hasiko dira lehenengo ikastaroak eta udaberria bitartean emango dira.



Aipatu behar da ikasle-kopurua mugatua dela. Informazio gehiago nahi badezu, 860809 telefonora deitu edo jo ezazu institutura bertara.

(Begiratu 31. orrialdean)

## Enterradore berria herrian

Ferminek ondo merezitako jubilazioa hartu duenez, lurperatzaile postua hutsik geratu da. Udalak lehiaketa bat antolatu du postu hau betetzeko eta epea itxi da jadanik.

Langile honen eginkizunak, hilerriari dagozkion zerbitzuetaz gain, ahateen putzuaren garbitasuna eta mantenua izango dira.

Hiru ariketa egin beharko dituzte aurkeztu direnek: Kultura orokorrari buruzko galderak, euskara froga eta ariketa praktikoak (igeltsaritzakoak batez ere)

**Arkupe**  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057  
20750 ZUMAIA



# Asentxio "Herri batek bere nortasuna Elustondo landuz bizi du kristau mezua"

Asentxio Elustondo Zumaiako parrokoa duela 65 urte Bidanian jaio zen. Bertsozale amorratua da, eta behin baino gehiagotan ere bertso-jartzailea. Kontrakoa badirudi ere, oso lanpetua ibiltzen da, baina guk denbora apur bat lapurtu ahal izan diogu.



Asentxiok denbora asko ematen du liburu artean.

## NONDIK DATORKIZU APAIZ IZATEKO BOKAZIOA?

Jainkoa benetan hartzetik. Eta haren aurrean egindako beste galdera honetatik: Non dago nire lekua gizarteak behar dituen zerbitzuetan? Hortik abiatuta, aurki dezake apaizak bere bokazioa, beste bokazio desberdin eta aberasgarrien artean: gaixoen eta behartsuen zerbitzua, guraso eginkizuna, gizarte arazoekiko erantzuna, bakardade eta otoitz bizitza, irakasletza, e.a.

## APAIZ BERRI GUTXI SARTZEN DIRA. ZEIN DA ARRAZIOA ZURE USTEZ?

Aukera handia dago gaur gazte batentzat, bere bizibidea eta zerbitzua hartzerakoan. Eta berdin kristau izan nahi duenarentzat; ez apaiz izatea bakarrik, ezta nagusiki ere. Hau batetik. eta bestetik, apaizaren eginkizuna eta bizikera eta gaur egungo posibilitateak ez ongi ezagutzea. Eta beste arrazoi asko ere bai, jakina.

## ELIZAREN BARRUAN EMAKUMEEK IA EZ DUTE ZEREGINIK, ELIZA GARBITZEA EZ BADA. ZERGATIK?

Badakit zer galdetu nahi duzun eta zer arazo planteatzen duzun, emakumea apaiz izateari buruz e.a. Alde askotatik ari da aztertzen eta begiratzen gai hau. Eta ikusiko da, zertara iristen den. Gainerakoan, ez zait iruditzen emakumeen eginkizuna elizan, garbiketara murrizten denik. Ebanjelioaren zabaltzaile onak dira, era guztietako behartsuen laguntzaile eta otoizlari leialak, guraso eta giza erakundeetako partaide bizkorak. Miresgarriak, hitz batean esanda hainbeste emakume kristau.

## ELIZAKO PARTAIDETZARI DAGOKIONEZ, ZERGATIK DA HORREN ESKASA? ZER EGIN DAITEKE HORREN AURREAN?

Zer esan nahi du honek: ez zaiola uzten jendeari parte hartzen? Egin aproba. Aurkituko dituzue jarrerarik irikieneko gizonezko eta emakumeak eliz ekintza horietan. Ez duela jendeak elizan partaidetzarik? Elizako partaidetza benetakoak pauso sakonak eskatzen ditu: etengabeko bihotz-berritzea, besteen premiekin bat eginda bizitzea ... eta pauso guzti horiek ez dira nolana ematen.

**"Aita Santuaren jarraitzaile izatea askatasun handiz egin daiteke"**

## ZER IRITZI DUZU ANTIKONZEPTIBO ETA SEXU INGURUKO GAIEN AURREAN?

  
**Azkue Autoak**  
Estazioko kalea, 19    Telefonoa: 861433  
20750 ZUMAIA    Fax: 861067

**MAITE**  
**ILEAPAINDEGIA**  
Berezitasuna ileen sendabidean  
Amaiako plaza z/g    Tif: 143278



  
**Loitz**  
• Eskola eta Bulegoko Materiala  
• Fotokopiak  
• Enkuadernazioak  
• Plastifikazioak  
• Fax Publikoa  
• Aldizkari eta Opariak  
Eribera Kalea, 4  
Telf. Fax: 14 34 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gizartearen joan-etorrirako arazo garrantzitsuak direla biak ere; gizarteak, benetan hartzen eta argitzen ahalegindu behar duena. Kristau izatearekin ere badu zerikusirik sexuak. Merezi du, ongi informatzea, hezitzea, prestatzea ... gizakien zorionerako eta elkarbizitzarako hain erabakior den gai honetan.

## Euskal diozesiaren aldekoa naiz, bai horixe!

### AITA SANTUAREN IDEIEN JARRAITZAILE AL ZARA?

Jakina dago. Jarraitzaile izateak, ordea, zer esan nahi du? Nor bere adimena baztertzea? Dena eta arazo guztietan, erabakitze ematea? Aita Santuaren jarraitzaile izatea askatasun haundiz egin daiteke; ez baitiezaiguke gizon batek -inork ere- ezarri, Jainkoak berak ezartzen ez digun ezer.

### Apaizen bizimodua

### APAIZ GUZTIAK ELKARREKIN BIZI AL ZARETE? EZTABAIDARIK IZATEN AL DUZUE?

Bai, baina etxe haundian. Elkar menderatzeak eta haserreak ez dauka izan beharrik ez apaizen artean, ez elizako elkartean. Jokaera heldu eta pluralista gero eta ugariagoa da. Eztabaidak? Nola ez! Baina elkarren begirunea eta onarpena galdu gabe.

### ZER EGITEN DUZU EGUN ARRUNT BATEAN?

Goizeko zazpirak inguruan hasten dut eguneko iharduna. Orduz ordu zehazten ibili gabe, ihardun honen lau alderdi azalduko ditut.

Egunaren zati on bat, Jesukristo berak ohi zuen bezala otoitzari ematen ahalegintzen naiz, bakarrik nahiz taldean. Gizadiaren nondik-norakoa ezagutzen, irakurtzen, ikasten, gaiak prestatzen, beste ordu batzuk. Era askotako harremanetan, zatirik haundiena: jendearekin, haurrekin, familiarekin, taldeekin han eta hemen, gaixoekin, hainbeste eratako izaerak eta premiak, pozak eta itxaropenak bizitzen. Atsedenean, lagunartean, artearen, historiaren, musikaren, literaturaren sailean.

Gaueko hamaika t'erditan bukatzen da eguneko ekinaldia. Honela hain iluna eta lotua dirudikeen gure bizitza, askatasun eta alaitasunean joaten da, bere ezin eta zailtasun guztiekin ere.

### JENDE ASKO EZKONTZEN DA ELIZAZ. FEDEAGATIK ALA TRADIZIO HUTSA DA?

Horietako askorekin, elizaz ezkontzen diren guztiekin, hitz egiteko aukera baliotsua izaten dut. Denen proiektuak eta bizipenak ez dira berdinak, baina denek dute beren edukin eta iritsi-nahi ederra. Eta nor jakin, noraino iristen den bakoitzaren fedea? Mundu misterioitsu eta bizi-



Zenbat meza eman omen ditu Asentxiok urte guzti hauetan? Auskalo!

**ITZURUN**  
**KIROLAK**

Amaiako plaza, 13  
Telef. 860758  
20750 ZUMAIA

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
INSTALAZIO MUSIKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telef. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larreito, 10 behe 1<sup>a</sup> - Telef. 14 34 74  
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

**DORNUTEGI**  
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Atzategi: 10 behea  
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



bizi bat da hori, bestelako itxura guztien gainetik. Elizaz ezkontzen ez direnak ere ez dira hain desberdinak; denetara zabaltzen da "Espiritua", era batera edo bestera.

## ETA ZER IRUDITZEN ZAIZU ARRIMATUTA BIZITZEA?

Egoera konprenigarria sarritan. Egoera osoagora eta iraunkorragora iritsi beharko duena. Horrelakoen aurrean, besteei kontuak eskatzea baino egokiagoa iruditzen zait arazo honetan nik eta besteek izan ditzakegun eginkizunak ezagutu eta bizitzea.

## Euskal Herriko kontuak

### EUSKAL DIOZESIA OSATZEAREN ALDEKOA AL ZARA? ZERGATIK?



Asentsiok eliza guztion aterpe bihurtzea nahi luke.

Bai horixe! Herri bat den lurraldeak, bere nortasuna galdu gabe eta nortasun hori gehiago landuz, hain zuzen, bizitzen du kristau mezua. Eta, nortasun horretatik, irekitzen da guztiekiko harremanera eta elkarbidera.

## SETIENEK JASOTZEN DITUEN KRITIKEN AURREAN ZER IRITZI DUZU?

Setienen jokaera gertutik eta sakonki ezagutzen duenak, ez dezake seriooki esan, jokaera leiala, kristaua eta jatorra ez denik. Eta hori, orokorki mailarik gorenean.

Beste edozeinek bezalaxe, Setienek ere kritikak jasan ditzake, noski, zenbait momentu zehaztutan, baina ez, hain errazki, arinki eta garrazki eginak.

## ARZALLUZEN IRITZIA, BILBOKO GOTZAIARI BURUZKOA, ONARTZEKO MODUKOA IRUDITZEN AL ZAIZU?

Politika "haundiaren", hau da herrien on osoaren izenean: espiritu baloreen, trszendentziaren, herrien nortasunaren, erlijioaren zerbitzu egokiaren izenean, ager dezake bere iritzia, eta asmatu bere ekintzak. Alderdi baten interesak besteen gainetik jarri edota erakunde baten eskubideak ahaztuko balira, berriz, ez litzateke joko garbia. Horrela ari al da gertatzen? Nik ez dakit hainbeste. Arzalluzentzat esaten denak, beste guztientzat ere balio du.

**"Arrimatuta bizitzea egoera konprenigarria da sarritan"**

## APAIZ IZAN ONDOREN EZKONTZEN DEN JENDE ASKO DAGO. ZEIN IRUDITZEN ZAIZU ARRAZOA?

Eliza osoaren barruan horretarako posibilitatea eta baldintzak ongi pentsatuak eta bideratuak daude. Pertsona bakoitzaren egoerak eta hartzen duen irtenbideak errespeto handia merezi du. Hori kontutan izaten saiatu beharko genuke.

## BUKATZEKO, ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU ELIZ KANPOAN JARRI DIREN FOKO ARGITSUAK?

Elizaren iharduera ez dute ezertan galerazten. Herriaren edertasunerako eta onerako erarik egokiena diren ala ez, denon artean, herritarrok esan beharko dugu. ■



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA

## SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituztenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tf/Fax: 861416

# Jende gutxi Goiko Plazan

Goiko plazara sarri joaten direnak eta bertan bizi direnak aspaldi konturatuko ziren gero eta jende gutxiago dabilela inguru honetan eta baserritarren azoka ere egoera larrian dagoela. Hau ikusita, arrazoiak aztertzen saiatu gera, plaza ingurua bultzatu eta arazoei irtenbide bat bilatu asmoz.

Goiko plazara inguratu eta azokara sartu ginenean ez genuen "panorama" ederra ikusi gure begien aurrean: arrandegi bakarra zabalik, laupabost baserritar bakarrik eta jenderik ia batere ez. "40 urte bai honera natorrela. Oraingo aldian jendia doblia etortzen zan, diferentzi ederra!. Baserritarrez beteta egoten zan plaza, eta orain berriz batez" esan zigun Pikote baserriko Karmenek.

Hain urrutira joan gabe, duela hamar bat urte ere martxa askoz hobia zeraman azokak; batez ere azken urteotan jasan du beherakada nabarmena, eta ez badira hartu beharreko neurriak lehenbailehen hartzen, garbi dago azoka hau erabat galtzeko arrisku bizian dagoela.

## Arrazoen bila

Zergaitik utzi dio jendeak hona etortzeari? Pentsatzen hasi eta arrazoi



Jeneroa bueltan etxera eraman behar izaten dute, ia batere saldu gabe.

bat baino gehiago topatu ditugu: jendearen ohitura aldaketak, erosotasuna, kokalekua, egoera, e.a.

Garbi dago bai orain jendeak beste era batera jokatzeko duela. "Jendeak lehen eguneroko erosketa egiten zuen, ta orain berriz astean bitan edo astean behin etortzen da. Esnia ere oso gutxi saltzen da orain plazan, etxez etxe ibiltzen baitira. Jendea ere lehen baino komodoagoa da eta nahiago du horrela".

Hau da baserritarrek ematen diguten arrazoietako bat. "Gazteek ez dute plazara joateko afiziorik. Orain asko gertatzen da larunbatetan kotxea hartu eta familiak egun pasa joaten direla Pryca eta horrelakoetara. Bertan

## Gazteek ez dute plazara joateko afiziorik.

kotxea bete eta etxera". Gero astean zehar falta duena jendeak erraz topa dezake inguruko denda batean. Karmenek esan zigun bezela, "dendetan, Eroskin berdura eta danetik jarri dute, eta horregatik galdu du azokak".

Adierazpen hauetatik ondorio batzuk atera ditzakegu; jendearen ohiturak zeharo aldatu dira, asti gutxiago izaten du eta erosotasunaren bila joaten da beti ere. Gaur egungo gizarteak, gainera, horretara bultzatzen du; jendea ez dago egunero erosketak

**JZETA**  
**orrastegia**

Urumea 6  
 Tf: 862083

• SUKALDERAKO ALTZARIAK  
 • ELEKTROGAILUAK  
 Erribera, 8  
 Telefonoa: 861694  
 \* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA





Lehen baino esne askoz gutxiago saltzen da orain plazan.

leku batetik bestera ibiliaz egiteko prest.

Jendea leku guztietara kotxez joaten ohitu da, eta Goiko Plazak arazo ugari ditu trafiko eta aparkalekuei dagokienez. Bestalde, oinez joateko hor dauden aldapen aurrean askok atzera egiten dute.

Arritxu arrandunaren ustez, "orain jende gutxiago etortzen da pixkat abandonatua dagolako. Garbitasuna, pintura pixkat eman ... horrelakoak egin behar litzuke udaletxeak. Plazari bizitasuna falta zaio". Plazaren egoera, hala da, tamalgarria da; zahartuta geratu da, argitasun oso gutxi du, ... Alde honetatik ere badago zer hobetua.

Etorkizunari begira, baserritarrak ez dira oso baikor. "Tristura da. Egunero etorri, tratua laga eta etxera. Uste det plaza galdu egingo dala. Ez det ertenbiderik ikusten. Hemen jai dago!".

### Zumaiako alde zaharrak zaharren alde dirudi

Beraz, zumaiarrok azoka izaten jarraitu nahi badugu ezinbestekoa izango da neurriak hartzea. Argi dago azoka zeharo zaharkitua eta atzeratua geratu dela. Eraberritze sakon bat beharko litzateke, bai eraikuntzan, bai azokaren eskeintzan. Gaur egungo bizimodura egokitu ala hil. Horixe da kontua. Azokak instalazio modernoak behar ditu, saltzaile eta erosleak erosoagoak egon daitezen, baina eskaintza ere hobetu eta handitu beharra dago.

Azken finean, gaur egun denda handietara joaten den gazte jende horri erakarri behar da azokara. Ezinezkoa da denda handiekin lehiatzea, baina bai zerbait ezberdina eskeintzea: kalitatea, tratua,...

### Inguruko dendak berdin

Baina arazo hau ez da azokarena bakarrik. Goiko Plazaren inguruko denda asko ere ixten ari dira, gero eta jende gutxiago ibiltzen baita. Herriaren alde zaharra eta bihotza diren kale hauek ahaztuta ditugu zumaiarrok, eta kaleko bizitza beheko kaletan egiten dugu.

"Gauza guztiak behean egiten dira, Kabalgata,... udaletxeak ez du ezer egiten goikaldeko kale hauengatik. Oso polita izango da baina... Hau gehiago promozionatu beharko litzateke". Hauxe da Mirenek azaldu zigun iritzia. Eta egia esan, du arrazoi falta. Goiko plazan udaletxea egongo ez balitz, oso jende gutxi ibiliko litzateke kale hauetan berrina.

Beste herri askotan ikusten dugu alde zaharrek bizitasun handia dutela, eta herriaren zati interesgarri gisa promozionatzen dira. Zumaiaren ez da hori gertatzen, oraingoz behintzat. Gure alde zaharra, zaharren alde dirudi, gazteak ez baitira kale hauetan ibiltzen, ziurrenik ez dutelako ezer erakargarria topatzen.

Berrito ere, erakargarritasunaren arazoaren aurrean gaude. Jendea bertara bultzatuko duen zerbait behar du gure alde zaharrak, eta hor udalak hartu beharko du bere erantzunkizuna.

"Jende zaharra bakarrik gelditu gera. Gazteek alde egiten dute". Horri buelta ematen ez bazaio, hemendik urte batzutara, konturatu gabe hilerria herrira jeitsi zaigula ikusiko dugu. ■

Surf

torre luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20600 ZARAUTZ

Ertibera, z/g  
Tel. 86 23 69  
20750 ZUMAIÀ

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK

**MARES** ETA AURREZ

PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

leize

TABERNA

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIÀ



Garai batean herriaren erdigune zen Goiko plaza.

## Ricardo Peña: "Egin behar direnak egiteko prest gaude"

### Alkatearekin ere hitzegin dugu arazo honetaz

Zer asmo ditu Udalak Goiko Plazak dituen arazoak konpontzeko?

Badira ia 3 urte parte zaharreko plan berezia aztertzen ari garela. gure asmoa parte zaharrari bizitza pixkat ematea da eta hirigintza aldetik ere zaindu behar da. Ikusten duguna zera da: Udaletxea eta azoka hemendik kentzen badira parte zaharra hondora joango dela, hilda geratuko litzateke.

Baina bestalde badakigu inguru honek bere mugak dauzkala: trafikoaren aldetik, orografikoki ere oztopo urbanistiko batzuk baditu, ... Kontuan hartu behar da parte zaharraren diseinu urbanistikoa orain

duela 400 urtekoa dela.

Konponbiderik ba al du arazo honek?

Jakin beharko litzateke zer posibilitate dauden hemen aparkalekuak sortzeko. Hor ia aukera bakarra mojarrek daukaten baratz inguru hori izango litzateke. Adibidez, ostegunetako azokara jende pila bat joaten da, aparkatzeko toki gehiago dagoelako eta errazago daukalako hara iristea.

Eta goiko azokari dago-kionez?

Guk ahalegin berezi bat egin genuen itxita zeuden postuak irekitzeko; erantzun eskasa izan zuen,

"Ahalegin berezia egin behar da jendea hona gora erakartzeko"

ordea, jendeak ikusten duelako oso mugimendu gutxi dagoela azoka horretan.

Inguru honetako dendariak abondanatu samar sentitzen direla aipatu digute.

Azken urteotan egin diren inbertsio haundienak parte zaharrean egin dira: saneamendua, pabimentazioa, iluminazioa, ... 400 milioitik gora sartu dira hori egiten. Arazoa bestelakoa da; ahalegin berezia egin behar da jendea hona gora ekartzeko.

Denda asko itxi dira Goiko Plazan.

Erribera kalean bertan ere 5 denda itxi dira. Zumaiian, nere ustez, ez dago ondo prestatuta. Zergatik? negozio bolumen txikia dugulako. Eta zergatik gertatzen da hau? Jendea kanpora joaten delako erostera. "Circulo vicioso" moduko bat da.

Etorkizuna nola ikusten duzu?

Arazo hau denon artean konpondu beharko genuke, baina honen bitartekaritza beteko lukeen talde baten falta ikusten da. Bestalde enpresa bat estudio bat egiten ari da, parte zaharrean eta herri osoan, eta azterketa honen ondorioak ikusi ondoren, egin behar direnak egiteko prest gaude. ■

**TXOKOA**  
T  
B  
E  
R  
N  
A



Artadi  
Auzoa  
Tlf: 86 21 89

*Jesuskoa*  
*Faletxea*



Azoka 86 17 39 • Oribia Zumaiain




**KABI**  
TABERNA - ZUMAIAIN  
Tfnoa: 143379



# 2005.

GROENLANDIATIK EUSKAL HERRIRA  
DOAN ITXAS HEGAZTI HONEK  
JATEKO ZERBAIT TOPATU DU  
BERE BICAI NEKETSUAN





BAINA ARRAINA  
KOIPETSUEGIA  
IRUDITU SIZTARION...




IZAN ERE  
KANTAURI ITXASOA  
GERO ETA KUTSATIAGO  
DAGO




BAINA  
BEREHALA  
AHAZTEN DU  
BERE  
LARRITASUNA  
IKUSTEAN  
URTERO  
ATSEDENALDI  
BAT HARTZEKO  
GERATZEN DEN  
KOSTALDEKO  
HERRIXKA





ORAINDIK ERUSTEAZ  
ZORABIATUTA  
ABIATZEN DA...




... HERRI HONEK DUEN  
PADURA LASATEAN  
ZERBAIT JAN ETA LO  
KULUKKA BATEGITEKO.






ZER DA HAU?  
ORAIN, IHAZ  
ZEGOEN  
PADURAREN  
ORDEZ  
ITXASONTZI  
PILA BAT  
BESTERIK  
EZ DAGO!



IKUSTEN DUENA  
ORAINDIK SINESTEN  
ER DUELA DABIL  
BAINA BAPATEAU...









KOLPEAK TRIPAK  
MUGITU DIZKIO  
NONBAI Tccc



BAINA GURE  
LAGUNAREN OPARIAK  
BEHEKO SENORITOREN  
BOSTMILA DUROKO  
ANTIOJUVETAN  
AMAITZEN DU  
ETA HORI  
EZ SAIO BATERE  
GUSTATUKO  
SENORITDARI.



BADDA, URRENCO URTEAN,  
ATSSEDENALDI BAT HARTZEKO,  
BESTE LEKU BAT EI LATU  
BEHARKO DUELA PENTSATUZ

**Kirol Porturik EZ!**

**ANAKA!**

**ASPALDIKO BI LAGUN ZAHAR ELKARTU ETA ...**

**Neska** - Epa, zer moduz?

**Mutila** - Kanpoan ibili al zara? Ze ez zaitut ikusi aspaldi honetan.

- Ez, lanean ibili naiz Zarautzen sokorrista gisa.

- Zerbait nahi al duzu hartu? Jo, egia esan morenita zaude.

- Atera gorri bat gasagaz, mesedez.

- Gorri bat? Horrelako neska batek gutxienez Baileys bat hartu behar du.

- Beno, beno, zu zara gizona!

- Eta zu zara preziosa - GERRITIK SAKONKI EUTSIZ.

- Eta zu asko aldatu zara bakero puskatuak eta jantziaz, eh?

- Bueno, ipurdialdean badaukat zulotxo bat, ea aurkitzen duzun - TENTSIOA AREAGOTZEN ZIHOAN HEINEAN.

- Ezpain guztiak blai eginda dituzu harrapaladan edan nahi izategatik. Nik sekakotz dizkizut - IGURTZIZ IGURTZI.

MUSIKA LASAI BATEN PAUSOEI JARRAITUZ DANTZAN MURGILTZEN DIRA, BERAIEI BARNEKO TEMPERATURA EBAPORATUAZ.

BATEN HANKAK BESTEARENekin GURUTZATZEN DIRA, BAKOITZARENak ZEIN DIREN JAKITEA EZINEZKOA DELARIK.

ESKUEK ERE, ASPALDIKO PARTEZ, ASKATASUNA DUTE, URTEETAN JASANDAKO ERREPRESIOARI UKO EGINEZ.



ARNAS HOTSEK MUSIKAREN ERRITMOARI JARRAITZEN DIOTE.

- Berotuta zaude.

- Badakizu ederki berotzen eta.

MUSIKA GERATU BEZAIN LAISTER, BERAIEI BEGIRADETAN ARGI ISLADATZEN ZEN TABERNAZ GAIN BESTE NONBAITEN ASETU BEHAR ZITUZTELA BERAIEI NAHIAK ETA BIAK ELKAR JAN BEHARREAN NESKAREN KOTXERA ABIATZEN DIRA.

- Kotxea txikiegia ez al da?

- Zuk beste zerbait txikiegia ez duzun bitartean!

- Kuestioa ez da txikia edo haundia izatea, potentea baizik.

NESKAK MUTILARI SEXUA

IKUTZEN DIO GALTZEN GAINETIK.

- Kalitate onekoa dirudi.

- Flotadore ederrak sokorrista batentzat - MUTILAK NESKARI BULARRA IKUTUAZ.

BEROAK BEROTASUNA ZEKARREN ETA BEROTASUNAK BERRIRO ERE BEROA.

ERROPEK HEGALDUNAK ZIRUDITEN BI GORPUTZAK LURRUNEZ INGURATURIKO KOTXEAN BAT EGIN ZIRENEAN.

- Jarraitu, jarraitu!

- Ez naun Indurain, joder!

- Hor, hor!

- Eutsi, eutsi, segi!

- Aupa Indurain!

- Helmuga dator, gutxi falta daaaaaaaaaahhhhhhhhh... ■



# ZUMAI A



## AUTO-ESKOLA



\* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua  
 \* Praktika eta azterketak Azpeitian  
 \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
20750 ZUMAIA

☎ 861018



## inportaturiko erropa eta artisautza

Basadi 3 Zumaia





# Motxian hi!

Nor: Ildenfonso Garcia  
Nola: Alfonxito

-Bakalaua ala trikitixa?

Bakalaua.

-Lanpara magiko bat aurkituko bazenu kalean, zein hiru desio eskatuko zenituzke?

Osasuna, milionarioa izatea eta lan gutxi egitea.

-Hil ondoren zer?

Berriro berpiztea..

-Neska bati botako zeniokeen piropoa.

Asko maite dudala

-Zer behar da ondo bizi ahal izateko?

Dirua.

-Zer falta da Zumaian?

Hotelillo bat, ni neskaren batekin lotara joateko.

-Eta zer dago soberan?

Etxeak.

-Emakumeei nora begiratzen diezu lehenago?

Gorputz guztian.

-Zein da zure bizitzako ilusioa?

Loteria tokatzea,

-Eta loterian 2.000 milioi tokatu ezkeru zer?

Nre andrearekin gastatu.

-Norekin joango zinateke oportetara galdutako iria batera?

Itziarrekin.

-Noiz egiten dezue ohea?

Ez det egiten.


Kontu-kontari

## KUKU ERLOJUA

Monin-en etxean bazen kuku erloju bat, orduak kukuka jotzen zituen. Ordubatean kuku, ordubietan kuku-kuku, eta horrela besteak ere. Monin behin goizaldean etxeratu zen. Ez zekien ze ordu zen, baina bazekien berandu zela. Ixil-ixilik sartu zen etxean, andreak entzun ez zezan. Orduan erlojua jotzen hasi zen:

- Kuku, kuku, kuku, ...

Monin agudo abiatu zen erlojuaren azpira. Zenbat jotzen zituen zain egon zen eta laurak jo zituen. Lau kuku, beraz. Orduan berak, erlojuaren azpitik, beste zortzi kuku jo zituen, andreak hamabiak zirela pentsa zezan.



### ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIAK  
· 24 orduetan  
· Zeure etxean  
· Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

### BIZKOR FOTOKOPIAK

- \* Enkuadernaketak
- \* Plastifikatzeak
- \* Fax publikoa
- \* Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120  
ZUMAIA Fax: 143120

# Itxas-Gainen denboraldi bikaina

Irati Azkue kadetea Espainiako txapelkun berria da 500 metroan

Zumaiako kirol talde ezberdinek emaitza kaxkarrak lortu dituzten urte honetan, Itxas-Gain Piraguismo Elkarreak izugarritzko denboraldia egin du. Espainiako txapelketetan hainbat domina eskuratu dituzte, eta taldeka ere Estatuko onenen artean izan dira. Hala ere, badirudi herrian ez ditugula kontutan hartzen. Horregatik guk beraiengana jo dugu, kirolari bikain hauei bultzada bat eman nahirik.

Trasonan (Asturias) duela hilabete inguru izan zen Espainiako txapelketan, Itxas-Gaineko neska-mutilek urrezko domina bat, bi zilarrezko eta beste bi brontzeko lortu zituzten. Irati Azkue Espainiako txapelkun berria dugu, kadete mailan eta 500 metroan garaipena lortu ondoren. Aitor Manzisidor eta Andoni Amilibiak zilarra lortu zuten K-2an eta K-4ean, kasu honetan Gorka Zendoia eta Haize Galarragarekin batera. Brontzekoak, Oier Aizpuruak (k-1, jubeniletan) eta Irati Azkuek Idoia Urangarekin batera (K-2) lortu zituzten.

Baina ez dira hauek Itxas-Gainek aurten lortu dituen emaitza onak bakarrik. Taldeko entrenatzailea den Joxe Manuel Balenziagak kontatu



Hauek dira Itxas-Gain osatzen duten neska-mutirik

**Itxas-Gainek  
aurten lortu  
duena ez du inoiz  
beste euskal talde  
batek lortu**

zigun bezala, "aurtengo denboraldia kristona izan da, harrigarria". Eta hala da, martxoan denboraldia hasi zenetik garaipenak eta zekulako postuak lortu baitituzte. Sevillan, Espainiako fondoko txapelketan hirugarren geratu ziren taldeka, Pistako Espainiako kopan ere hirugarren, Ibaietan bigarren, etabar luze bat. Abuztuan ere, Oier Aizpuruak, Maider Ramirez, Itziar Lopez eta

Marijo Medizabal Espainiako selekzioarekin Munduko maratoni Kopan izan ziren, zazpigarren, seigarren eta zortzigarren geratuz.

## Aurrerapauso handia

Azken bi urte hauetan aurrerapauso ikaragarria eman du talde honek. Lehen batez ere inguruko probetan hartzen zuten parte, baina iaz hasi ziren Espainia mailan ere lehiatzen eta maila ona ematen. Aurten, Espainia mailako 20 bat probatan izan dira eta nazioarteko beste hirutan. Guzti honek noski, ahalegin eta lan handia eskatzen du. Itxas-Gainek aurten lortu duena, ez du inoiz beste euskal talde batek

**goofy**  
HAUR JANTZIAK  
Amaiako plaza, z/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**agustin**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA  
Itzurun Zubaitz-bidea, 1  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

**julio curiel**  
PELUQUERO  
Erribera kalea  
ZUMAIA



lortu, eta hori azpimarratzekoa da. Gazte hauen denboraldia urrian hasten da neguko entrenamenduekin. Bost egun aritzen dira negu partean, eta Martxoan denboraldia hasten denean, sei egun sartzen dituzte astero. Txapelketaren aurretik berriz, goiz eta arratsaldean entrenatzen dira. Emaitzak begibistan daude.

Kontutan izan behar da Itxas-Gain Espainiako talde onenekin lehiatu dela urte osoan zehar, eta nahiz eta baliabide gutxiago izan proba askotan lehenengo hiruren artean amaitu dutela. Itxas-Gainen aurretik Zamorako "Amigos del Remo" taldea eta Galiziarrek bakarrik izan dira. Lehenengoak erdi-profesionalak dira eta galiziarrek izugarritzko laguntza dute babesle baten eskutik. Itxas-Gain berriz, ez dago dirua botatzeko moduan, eta kanpora ateratzen diren gehienetan kanpinetan egin behar izaten duten lo. Furgoneta eta K-4

berri bat erosteko beharra dute, baina dirua ez zaie guztirako iristen. Iaz 6-7 milioiko aurrekontua izan zuten, eta batetik eta bestetik lortutako laguntzekin osatu zuten. Garaipenek ere diru sarrera bat suposatzen dute, eta batez ere, materiala erosteko laguntza bat. Baina, Joxe Manuel entrenatzaileak esan zigunez, "beharrezkoa dugu babesle bat izatea, horrelako mailetan aritu ahal izateko".

### **Herrian ahaztuta ditugun bitartean, hemendik kanpora ezagunak bihurtu dira**

Babeslearen laguntzarekin orain dituzten zenbait muga eta eragozpen gainditu zituztela uste du entrenatzaileak. "Kapinetan lo egin beharrean, pentsiotan edo hoteletan egingo genuke, beste

taldeek bezala. Gainera, furgoneta berria erosi eta materiala ere kalitatezkoa izango genuke". Materialak ze garrantzi izan dezakeen argitzeko adibide bat jarri zigun. "Oierrek munduko kopako maratoian parte hartu zuenean, jendeak hiru kiloko piragua zuen; Oier hamaika kiloko batekin aritu zen". Gainera, babeslea bilatzerako orduan, badituzte beraien argudioak, emaitzez gain, telebistan ere beraiek korrituriko hiru proba atera baitira.

Hurrengo denboraldiari begira, aurtengoa errepikatzea zaila ikusten du Joxe Manuelek, "batez ere, jende asko mailaz igotzen delako".

### **Herriaren erantzun eskasa**

Azkenik aipatu behar da zumaiarrok kirolari bikain hauek zeharo ahaztuta ditugula. Joxe Manuelek dioenez, "eskubaloian, arraunean edo Futbolean zerbait lortzen denean, ongi-etorria ematen zaie herrian. Guk Espainiako txapeldun bat dugu eta ez zaigu kasurik egiten".

Ez da berdina gertatzen hemendik kanpora. Itxas-Gainek izena lortu du Espainia mailan, eta Asturiaseko egunkariak ere faboritotzat jotzen zituzten Espainiako txapelketan. Espainiako federazioak ere gutun bat bidali zien emaitzengatik zorionduz, eta era berean beraien harridura azalduz.

Ia ba behingoz kirolari hauei merezi dutena ematen diegun, beraiek gure herriaren izenagatik egiten dutena ordainezina bada ere. Aupa gazteak!



*Espainiako txapelketan domina lortu zuten sei zumaiarrek*

<p><b>KOSTA GAS</b></p> <p>GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK</p> <p>Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)</p>	<p><b>expert</b></p> <p><b>ELEKTROGAILUAK</b></p> <p>Mertxe Aizpurua</p> <p>expert eta Repsol-Butanoren Banatzaile Ofiziala</p>
--	---

**GURE TXOKOA**

**TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo ezberdinak

**San Pedro kalea Zumaia**

# Zumaia-Azkoitia triatloia izango da hilaren 23an

Hilaren 23an, Zumaian hasi eta Azkoitian amaituko den triatloia izango da, Azkoitiko triatloi taldeak antolatutik. Irteera arratsaldeko 16.30etan izango da Talaipen. Igerian 1,5 kilometro, bizikletaz 38 eta korrika 10 egin ondoren iritsiko dira Azkoitiako helmugara.

Triatloia gero eta indar gehiago ari da lortzen, eta gure herrira ere iritsi da ahalegin haundiak eskatzen dituen kirol hau. Zumaia eta Azkoitia bitarteko proba honek Talaipen izango du hasiera, parte hartzaileek kilometro t'erdiko igeriketa egin beharko dutelarik. Gero arranplan bizikleta hartu eta Zarautz, Meagas Zestoa, Azkoitia ibilbidea bete beharko dute. Amaitzeko, Azkoitian zeharreko hamar kilometroko korrika saioa izango dute.

Triatloi honetan parte hartzeko Azkoitiako Zubiaurre polikiroldegian eman behar da izena hilaren 4a eta 15a bitartean (Tlfnoa: 812544). Federatuek 1500 pezeta eta ez federatuek 3000 ordaindu beharko dute, Azkoitian Euskadiko Kutxak duen bulegoan, zenbaki honetan:

031.0.02479.0



Antolatzaileek sei kategoria ezberdin jarri dituzte, adinaren arabera. Diru sariak seniorrentzat bakarrik egongo dira, eta besteentzat lehenengoek trofeoak izango dituzte.

Boxes-ak Azkoitiako enparantzan eta Zumaiaiko Amaia plaza egongo dira kokatuak. Zumaiaiko boxes-etan bizikletak utzi beharko dira, eta Azkoitian korrika egiteko oinetakoak. Oinetakoak kamioi batek eramango ditu Azkoitira.

Zenbakiak egun berean banatuko dira, 14.00tik aurrera, Zumaian. Zenbakia jasotzeko beharrezkoa izango da ordain agiria aurkeztea.

Esan behar da baita ere, errepidea ez dela moztuko proba honen zehar eta trafikoa irekia izango dela.

Ziur gaude zumaiarrak ere izango direla parte hartzaileen artean, eta ikuskizuna polita izan daiteke. Eguna hilaren 23a. Ordua, arratsaldeko 16.30etan. ■

## IZERDI TANTAK

### Kirol talde ezberdinak dagoeneko martxan

Uda parteko atsedena utzi eta dagoeneko denboraldi berria prestatzen ari dira Zumaiaiko kirol talde ezberdinak. Iazkoa hobetzea ez zaie zailegia izango, benetan urte eskasa izan baitzen. Futbol, eskubaloio edo saskibaloio taldeek itxaropen eta gogo berriekin ekingo diote aurtengoari, eta ziur emaitza onak eskuratuko dituztela.

Beste batzuk amaitu berriak edo amaitzekotan daude. Aurretik irakurri duzuen bezala, piraguistek merezitako atsedena izango dute. Arraunlariak ere laster hartuko dituzte oporrak, baina urritik hasita berriak ere entrenamenduei gogor heldu diete neguan, gero denok espero ditugun emaitzak lortu ahal izateko. Animo guztiei!



### PLAIEROEN GARAIA DA

Oraindik ez dago batera garbi aurtengo plaiero txapelketa nork antolatuko duen, baina nola edo hala eutsi egin behar zaio ohitura eder honi.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAILA

## xirula



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g  
Tel. 861705

20750 ZUMAILA





**Miren Iribar**

Zumaia ez da klasifikatu, maitte! Neretzako Oriok irabaziko du. 2.go astean jungo naiz, finalekuan, ya bukatzerakuan.



**Benito Irigoien**

Kontxako egunian zer? Regatak dia. Ni ez naiz jungo zumaia irak ez due ertetzen ta. Ijituak irabaziko due, bai, oriotarrak.



**Begoña Agirrezabalaga**

Kontxako egunian gustoa jungo nintzake, baina ezin det jun. Nere seme-alabak jungo dira nere orde.



**Jesus Mari Etxabe**

Jungo gea kuadrila animatzen bada. Ondo egoten da geroko ambientia.

# Eta Kontxan zer?



**Araitz Zubimendi**

Jungo gera gorritz jantzita. Estropa ikustera ere bai, baina gehienbat gero egoten den ambienteagatik.



**Xabier Irigoien**

Lastima da zumaia irak ez ertetzia. Nik esperantza haundiak jarrita neuzkan zumaia irakin, ze gaziak izanda're merezi due. Bestela, Oriok nagusi.



**Joxe Etxabe**


Zer pasa da ba? Lehenon juten nintzan kuadrilakin, baina orain Zumaian geratuko naiz eta nere planak egin. San Pedro edo Oriok irabaziko du seguruna.



**Jurgi Lafuente (arraunlaria)**

Galdera hori ezin zaio arraunlari batei egin. Nik ezin det hortaz hitzegin, gero hitzegingo degu, Kontxa pasatakuan.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

*Belardenda*  
**Paki**  
erribera 2  
Tlf: 143156  
OSASUN NATURALA

**ONCE**  
**JOXE MANUEL**  
Kupoi batzuk erosi eta ...  
**ZORTE ON !!**



"Def Con Dos? Hoiek musika ona? Hitz itsusiak esaten baino ez dakite eta!"  
Bat baino gehiago arbolen bat puskatzeko irrikitan egongo zen kontzertuak debekatzeko. Izurrai!

Teoria batek dioenez, euskara Afrikatik omen dator. Arzalluzek ere nahiago omen zuen euskaraz hitz egiten duen beltz bat ez dakien txuri bat baino. Honek euskaraz egiteaz gain, bertsotan ere badakiela demostratu zion Maiari. Hori bai, sagardoari gogotik eman ondoren.



Arrakasta ederra izan zuen koadrilen egunean antolatu zen bazkari herrikoiak. Ia hurrengoan Pulporaino mahaiak jarri eta betetzen ditugun



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

M<sup>a</sup> Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA

**ZALLA**

**TABERNA**  
**ERRETEGIA**

Plater konbinatuak - Otartekoak  
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 Tel: 862387  
ZUMAIA

**Galdona**



**burdindegia**

Mendaro mariñela, 1 20750  
Juan Belmonte, 15 ZUMAIA  
Tf: 86 11 17 / 14 33 46 (Gipuzkoa)  
Fax: 861330



# Gazte Batzordeak begirale ikastaroa antolatuko du

Zumaiako Gazte Batzordeak begirale ikastaroa antolatuko du urritik maiatzera bitartean. Begirale ikastaro honetan parte hartu nahi baduzue, izena Foronda Kultur Etxean eman beharko duzue hilaren 15a baino lehen.

18 urtetik gorakoek izango dute aukera eta ikastaroa euskaraz izango da ("Minusbaliak" gaia ezik). Gainera tituloa atera ahal izateko partaideek %95eko partaidetza ziurtatu beharko dute, eta horretaz gain, ikastaroa amaitu ondoren praktikak egin. Praktika horiek udaleku nahiz Astialdiko Elkarte batetan egiteko aukera izango dute.



Taldea osatzeko gutxienez 12 pertsona behar dira, eta gehienez 30. Zumaian dagoeneko 21 pertsonak eman dute izena, beraz, interesik baduzu azkar ibili.

Ikastaro hau hiru asteburutik behin izango da, eta bertan irakatsiko diren gaiak hauexek dira: Pedegogoia, soziologia, aisialdia, begiralea, metodologia, plastika, jai,

jolasa, sexu heziketa, hizkuntza lana, minusbaliak, espresioa, udaleku eta kanpaldiak,...

Badakizue. Udaran diru pixkat irabazi nahi baduzue, begirale ikastaro hau laguntza handia izango duzue. Gero ez esan gazteentzat ez dagoela ezer!


## Gazteei deialdia

Udaletxeak deialdi bat luzatzen die Zumaiako gazte guztiei, hilaren 22rako. Arratsaldeko 7etan Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan izango den bilera honetan, gaztediari begira udazkenerako programaketa edo ekintzak antolatzeko asmoa dago. Interesa eta zeresana duten talde eta gazte guztiei egiten zaie dei.



**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

  
**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefona: 862206

**ARGIA**



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA

## HITZALDIA



Irailak **15**, ostirala, arratsaldeko 7'30etan Aita Mari aretoan, ZULOAGAren urteurrena zela eta antolatutako programaren barne atzeratuta geratu zen hitzaldia eskeiniko da:

Jose Ignacio Telletxea-Idigorasen eskutik, "Los amigos de Zuloaga en Santiago Etxea"

## KONTZERTUA

Irailaren **30**ean, larunbata, iluntzeko 8'45etan San Pedro Parrokian Organu kontzertu bat izango da, Esteban Elizondo maisuaren eskutik.

## IKASTAROAK

Udazkenean hasi eta udaberria bitartean Foronda kultur etxean ikastaro jakinen bat egin nahi badezue, eman iezaguzue horren berri. Deitu edo hurbildu Forondara (861056) eta eman zuen ideia eta proposamenak.

**Irailak 28an, Txatoren omenaldiko ekitaldien barne, GARI kantariaren saioa Oxford-en**

## SAN MIGELAK ARTADIN

Gure auzoetako festekin amaitzeko San Migelak izango ditugu Artadi auzoan.

**29an**, San Migel egunean pelota partiduak, bertsolariak, txakolin dastaketa eta Kaxianoren saioa izango dira.

Larunbatean, **30ean**, zezenak eta zaldi txikiak izango dira arratsaldean, eta gauean musika.

Bukatzeko igandean, urriak **1ean**, ere zezenak izango dira, eta baita trikitilarien saioa ere.



## ZINE FORUM BILERA

Irailak **20**, 7etan udazkeneko Zine Forum zikloaz hitz egiteko asmoz, bilera bat izango da Forondan. OSTARRENA Zine Klub taldeak herriko zinemazale guztiak gonbidatzen ditu bilera honetara.

## JULENE AZPEITIA VII. IPUIN LEHIAKETA



1995 ZUMAIA

Gogoratu lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko dela. Gaia librea da eta ipuinak gutxienez 12 folio eduki beharko ditu, makinaz idatzirik bi espaziotara.

Hiru sari emango dira: lehenengoa **325.000** pezetakoa, bigarrena **150.000** pezetakoa eta azkenik zumaiarraren lan hoberenak **125.000** pezeta jasoko ditu.

Ia aspaldian buruan bueltaka dabilkizun ideia hori paperean jartzen dezun. Animo!



**AIZPURUA**

LIBRERIA  
R U D E N D O P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 861569  
20750 ZUMAIA



**ERTZ INFORMATIKA**

**Mendaro Martiela 3**

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK

-DISKETTEK



**FOTOTEKA**



Argazki Elkarteak prestatzen ari den Fototeka bildumarako laguntza eskeini nahi badezue, Zumaia edo bertan gertatutakoei buruzko zuen argazki zaharrak uzten, deitu edota azaldu Forondara. Zuen laguntza ezinbestekoa da fototeka txukun bat osa dadin.

**MUSIKA IKASKETETAKO MATRIKULAK**

Irailan zehar Ubillos musika etxeko ikastaroetarako izena emateko epea zabalik izango da. Horretarako, deitu edo hurbildu Musika Eskolako bulegora (861183), arratsaldeko 4etatik 7etara bitartean.



**OHARRA**

**LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA.**



Irailaren 15a bitartean Udal Liburutegiaren bi atalak, haur eta Helduena, goizez bakarrik egongo dira zabalik. 18tik aurrera, ohizko ordutegia izango dute, goizez eta arratsaldez.

**IRAKURKETAKO AUKERAK**

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian



**Euskaraz**

**Gaztelera**

- \*Hinki-Hanka
- \*Tetris: Zutabeak eta lerroak
- \*Bazko Arrautzak
- \*Euskal Herria helburu
- \*Euskomunia ala Zoroastroaren artalde!

- Manex Erdozaintzi-Etxart*
- Luis Fernandez*
- Mikel Hernandez-Abaitua*
- "Txillardegi"*
- Patxi Zabaleta*

- \*Fatal inocencia
- \*Sliver (Acosada)
- \*Malcom X (Autobiografia)
- \*Tombstone
- \*Las nueve revelaciones
- \*La presa
- \*Frankenstein o el moderno Prometeo

- Michael Dobbs*
- Ira Levin*
- Malcom X-Alex Haley*
- Giles Tippete*
- James Redfield*
- Kenzaburo Oé*
- Mary Shelley*

**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAIA      Telefonoa: 861485  
Fax: 143143

**W G U Z K I**

**PUB**

**KOKTEL BEREZIAK**

Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA

**ITSASKI**

**supermerkatua**

Urumea kalea z/g  
Zumaia

# EZBAIKORRAK, izenez, ez izanez

Ezbaikorrek izan arren taldearen izena, talde honek biltzen dituen lau lagunek ideiak oso garbi dituztela nabaritu genuen taldekide zumaiarrarekin hitz egin genuenean. Felix Llaborik kontatu zizkigun guztiak hurrengo lerroetan azaltzen saiatuko gera.

**Noiz eta nortzuk sortzen dute Ezbaikorrek?**

Taldea 1993ko neguan sortzen da. Partaideak JONTO kitarra eta ahotsean, LUIS baxuan (Bi hauek Ondarrukoak dira), JESUS beste kitarran eta azkenik ni (FELIX) baterian. Lehenengo biak *Baneteuanba* taldetik datoz. Taldeko kitarrak jotzeari utzi ondoren Luis ezagutu zuten, eta gero bateriarekin gustora ez zeudenez hark ere taldea utzi zuen eta niri deitu zidaten. Nik garai hartan AGEN jotzen nuen. Jesus Debakoa da eta lehenago ere nirekin aritu izan da *A Santo De Que* taldean.

**Zer esan nahi du Ezbaikorrek?**

Beno, izen honek bere istorioa du. Izen asko pentsatu ondoren ez genuen aproposa zen bat bera ere bilatu. Egunak joan eta egunak etorri ez genuen erabakitzen, beraz *Ezbaikorrek* gaztelaniaz "indeciso" denarekin geratu ginen.

**Lehen komentatu ditugun talde horietaz gain, zer beste esperientzia dituzue?**

Jesus eta ni aurretik *Desakatum* jotzen genuen, baina besteak beti aritu izan dira *Baneteuanban*.

***Baneteuanbak* bi maketa eta erdibanako diska bat zituen grabaturik. Nolatan desagertu zen inoiz talde ezaguna izatera iritsi gabe?**

Beno, grabatzea gauza bat da. Bai, *Hor Konponekin* grabatu zuten diska bat erdibana, baina hori ez da ezer. Urte asko izan ziren eta azkenean izena aldatzea nahi zuten; abesti berriak lantzea ere nahi zuten, baina erreta zeuden, oso nekatuta. Istorio batzuk aurrera jarraitzen dute,

baina beste batzuk horrela amaitzen dira.

"Momentuz gure helburua jotzea da eta gure musika ezagutaraztea"

**Dena den *A Santo De Que* eta *Baneteuanba* estilo berean joan ziren taldeak genituen.**

Bai, denok landu degu POP musika, eta *Ezbaikorrek* taldeak lantzen duenak dudari gabe *Baneteuanbaren* sustraiak ditu. Abesti guztiak Jontorenak dira eta hori ongi nabaritzen da. POP-ROCK agian, ni beti izan naiz oso poperoa.

**POParen garaiak al dira?**



Jesus eta Jonto: urte askotako esperientzia biltzen dute bietan ere

**KALARI TABERNA  
JATETXEA**

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



JUSTA  
TABERNA  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK

Erribera kalea, 20



Noiz izan da POParen garaia? Hemen Euskal Herrian badakigu nola doan gauza: distortsioak, hitz konprometituak eta musika gogorak du arrakasta. Nire ustez musika mota guztien garaiak dira hauek, baina betikoa gertatzen da. Hemen POP taldeek ez dute inoiz arrakastarik lortu.

**Euskaraz abesten duen zein beste talde ezagutzen dezue?**

*Lau Behi* agian, bestela *Zarama*, baina hauek duela gutxi desagertu dira. Dena den, beste talde asko oso poperoak izan ziren, *Hertzainaken* azken diskoa adibidez, eta asko saldu zuten.


**Zarama komentatu dezue. Beraien azken kontzertuan jo zenuten eta horrez gain entzun degu Roberto Mosok ere lagundu zaituztela.**

Bai, bere aldetik hitz ederrak jaso ditugu. Berak dionez ez du ulertzen nola horrelako talde batek diskarik ez duen eta ez dabilen jotzen. Baina beste alde batzutatik ere lagundu gaituzte.

"Gure estiloa Pop-Rock izan daiteke. Ni beti izan naiz oso poperoa"

**Zergaitik ondarrutarrez?**

Jontok egiten ditu hitzak; ondarrutarrez pentsatu eta hitz egiten du, beraz hori da logikoena. Niri gustatzen zait euskalki hori eta



la beti Pop-aren inguruko taldeetan aritu da Felix. (Argazkia: Aitor Bayo)

idea baita ere. Arazo bat da jende askok ez duelako ulertzen abesten deguna, baina euskalkiak mantentzea interesgarria da denontzat.

**Maketa kalean**

**Maketa kaleratu berria dezue, ezta?**

Bai, Larrabetzuko *Revolution Records*en grabatu genuen aurtengo ekainean. Ez zaigu nahi genuen bezain ondo gelditu instrumentu guztiak batera grabatu behar izan genituelako; betiko arazoa: dirua. Estudioak garestiak dira eta guk genuen presupostutik ezin ginen pasa. Gero "solo" batzuk banaka egin genituen. Dena den, gustatzen zaigu.

Lehen aldean daudenak berriak dira, bost guztira. Bestaldekoak, aldiz, *Baneteuanbak* kaleratu gabe zituen

bost abesti dira, orain guk jotzen ditugunak. Pozik gaude maketa honekin eta aipatu beharra dago Jontorenak direla abesti guztiak.

**Beraz, Jonto da taldeko burua?**

Beno, horrelako zerbait. Buru asko daudenean taldeek bizitza motza izaten dute.

**Maketaren ondorengo proiektuak?**

Jotzea. Egia esan gutxi jotzen degu eta ia beti garagardo eta afarien truke. Badakigu ez degula diru asko irabaziko honen kontura, baina horrela ibiltzeak nazkatu egiten zaitu. Momentuz gure helburua jotzea da eta gure musika ezagutaraztea. Horretarako komunikabideetan banatu degu gure maketa jendeak ezagutu dezan. ■

**IHINTZA**  
taberna  
Tlf: 860472  
Ortega y Gasset, 3


**TXALAPARTA**  
O P A R I A K  
Angeles Sorazu, 2 Telf. 14 30 89  
20750 ZUMAIA Fax. 43 06 37  
(Gipuzkoa)

**JE MAR**  
**LOREDE NDA**  
LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK  
Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA

## Abaraska

Erantzun guztiek sei letra dituzte eta zenbakiaren inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla beti.


1. Baino
2. Gazte prestua
3. Mendi hegala
4. Enbutuak
5. Euskarri
6. Poztu
7. Eusko
8. Sutsu
9. Gandua
10. Bete-betea
11. Mutu
12. Eskema
13. Gain
14. Jaurtiketak
15. Lemazain
16. Katu eme



## Gurutzegrama

**Ezker eskuin:** 1.- Nafarroako herria. 2.- Abarrak. 3.- Suzko lamak. 4.- 365 egun. Alkoholen bukaeran. 5.- Neonaren sinbolo kimikoa. Tema. 6.- Lehen bokala. Esandakoa jasotzen duten idazkiak. 7.- Karrika. Uranioaren sinbolo kimikoa.

**Goitik behera:** 1.- Adiskideak. 2.- Madari. Bokala. 3.- Zirt edo ...Aluminioaren sinbolo kimikoa. 4.- Bero. 5.- Iratzea. Juntagailua. 6.- Ipar Amerikako herria. 7.- Nork plurala. Aintzira.



## Negar egiteko txistea

- Aizu Mirentxu... konturatu al zera nik badedala zuk ez daukazu zeozer?

- Bai Kepa bai ... konturatu naiz. Baina nere amak esan dit, nik daukadanarekin horrelako nahi adina lor ditzakedala.

## Umorea

Kokoe-k ElgoiBARREn 116. zkia.

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK




## DISKO-BAR

*Margi*

Alai Auzotegia 2.

## JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853



**AGURRAK**

KaraKarton, hi ze haiz tautala eo totolua, eh?

Ibon eta Raquel: Berbenan lotitekin peatu al zinaten?

Buitraker: laister kalabazen denboraldia hasiko dek. Jun prepatzen!



Aupa Patxi! Eskerrik asko. Ia laster hortik bueltatxo bat ematen degun. Hil ta Pakia.

Jo ta Ke Erromo askatu arte! Orain erromatarak KASkuakin hasi al dira ibiltzen?

Langileen kaleko alper horiei! Alimon, oporrak berriz ere gainean ditugu ta.

Belta: enfermerekin eta rebistako neskekin laister osatuko haiz motel!

Apolo! Bizi al haiz?

**SALEROSKETAK**

Mountain-Bike bat salgai. Amortiguadorea dauka aurreko gurpilean eta oso ondo dago. Deitu 862400 edo 861463 telefonoetako batera.

Windsurf ohola salduko nuke. Telefonoak: 862400/861463.

**Salmenta puntuak**

**Jesuskoa**

**Errota (Erribera)**

**Errota (Basadi)**

**Errota (Juan Belmonte)**

**Ogi Berri (Amaiako plaza)**

**Ogi Berri (Basadi)**

**Arkupe okindegia**

**Aizpurua liburudenda**

**Olano liburudenda**

**Loitz liburudenda**

**Alai janaridenda**

**Nikol kafetegia**

**Inpernupe taberna**

**Zalla erretegia**

**Foto Gar**

**Arroa Beheko estankoa**



HARAGITEGIKO, 15 - 1. TEL: 86 21 16



**ALEMANIERA ZARAUTZEN**

MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK

BERRIAK: MERKATAL ALEMANIERA  
MINTZA IKASTAROAK

ORDUTEGIA: GOIZEZ-ARRATSALDEZ-GAUEZ  
ZIGORDIA 11,1 (UDALETXE ONDOAN)  
TEL/FAX: 835609

**ZUMAIako INSTITUTUA**

Tfno. 86.08.09



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Ekonomia Departamentua  
Departamento de Economía

**BIRZIKLAIA IKASTAROAK**

LANGILEENTZAT

IKASTAROA HASIERA Matrikula (Gutxi gora behera) ORDUAK

IKASTAROA	HASIERA	Matrikula (Gutxi gora behera)	ORDUAK
WORD 6.0 WINDOWS (2)	95/10/09	9.100	40
AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK (1)	95/10/16	10.400	40
EXCEL 5.0 WINDOWS (1)	95/11/08	9.100	40
NEUMATIKA (1)	95/11/13	15.600	60
KONTABILTATE MEKANIZATUA	95/11/14	15.600	60
ACCES 2.0 WINDOWS (1)	95/12/04	9.100	40

IKASLE KOPURU MUGATUA .....

# Lehiaketa goxoa



Koadroaren barruan azaltzen den linternero honen izena asmatzen dezuenen artean

## Txapartegi gozotegiak

eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **irailak 26a** baino lehen, eta zorte on!

Lehenengo hilabeteko mutikoak Iñaki Mendizabal, Karlos del Pilar eta Jon Maia ziren. **Unai Olabarriak** ederki asmatu zituen eta berari egokitu zaio San Markos tarta goxoa. On egin!



**ZUMAIako  
INSTITUTUA**

 86.08.09/86.23.20



**MATRIKULA EPEA  
IRAILaren  
6tik 11ra**

## 1.995/1.996 IKASTURTEA ESKEINTZA

IEE/REM 1

IEE/REM 2

**LOGSE 1**  
GIZARTE-ADMINISTRARITZA

**LOGSE 2**  
GIZARTE-ADMINISTRARITZA

**LOGSE 1**  
ZIENTIFIKO-TEKNIKO

**LOGSE 2**  
ZIENTIFIKO-TEKNIKO

**SISTEMA AUTOMATIKO  
ETA PROGRAMAGARRIEN  
GOI-TEKNIKARIA**

**ENPRESEN  
ADMINISTRAZIOA  
GOI-TEKNIKARIA**